

2023KO EKAINAREN 9KOA XEDAPENA, OSATEK, S.A. SOZIETATEKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERREDA, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREN ARABERA, OSATEK-EN DESTINOA DUTEN ADMINISTRAZIOKO OFIZIALAREN KATEGORIAKO LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO, MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEKEN destinoa duten administrazioko ofizialaren kategorian lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileak 2023ko maiatzaren 8an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEKEN destinoa duten administrazioko ofizialaren kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuko izangaien behin-behineko zerrenda, merezimenduen puntuazioaren arabera, merezimendu-lehiaketa bidez.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, behin-behineko zerrendaren ondoren, zuzendari gerenteak izangaien behin betiko zerrenda onartu du, merezimenduen puntuazioaren arabera.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Izangaien behin betiko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKEN webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: Lanpostuak puntuazio-hurrenkeraren arabera esleituko zaizkie izangaiei, eta hamar egun balioduneko epea ezarriko, xedapen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita da hautaketa hori egiteko. Beraz, puntuazio handiena lortzen duena destinoa aukeratzen lehena izango da, eta horrela hurrenez hurren.

Laugarrena: Pertsona interesdunei jakinaraziko zaie hautatuak izan direla, eta Osatek, S.A.-n aurkeztu beharko dituzte, kontratazioa egin baino 10 egun baliodun lehenago, 2. oinarrian jasotako parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte, aurretik aurkeztutako dokumentazioa osatu arte.

Bosgarrena: Hautagaiek eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkeztu ez badute, prozesutik kanpo geratuko dira, eta OSATEKek hautagai hau kontratatu ahal izango du, prozeduraren amaierako puntuazio-ordenari jarraikiz.

Seigarrena: Xedapen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osatek, S.A.-ren Administrazio Kontseiluari, idatziz, posta-helbide honetan: Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua. 48011 Bilbao, hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.



Data/fecha: 2023 EKA: 09

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK / N°: 37 / 2023

Bilbon, 2023ko ekainaren 9an
Zuzendari gerentea
Josu Xabier Llano Hernaiz